



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Sal6n de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales/as:

EH-Bildu

Andoni Alvarez Lete
 Estibalitz Mujika Tolaretxipi
 Jon Zulueta Berastegi
 Garazi Usandizaga Zubiria
 Julian L6pez Aracama
 M^a Teresa Etxeberria Arteun
 Xabier Fond6n Pajares

PSE-EE

Jos6 Luis Verdasco Gutierrez
 Ascensi6n Parr6n Peguero
 Petra Romero Pozo
 Oscar Mendo Gonz6lez

EAJ-PNV

Maria Jose Izagirre Iturzaeta
 Mikel Arregi Aranburu
 M^a Sagrario Ruiz Fern6ndez
 Imanol Goenaga Egibar

Elkarrekin Podemos

M^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000013
Eguna	2020/12/17
Hasiera	19:00
Amaiera	19:30

Idazkaria:

María Uriarte Zuricaray

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso
 Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Gai Zerrenda:

- 2020/11/25ean egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- Xochilt Acalt elkartearekin urte anitzeko hitzarmena berritzeko proposamena.
- Gizar eskubideen defendatzaileak babesteko udal euskal sareari atxikitze proposamena.
- Adingabeei tratu ona emateari buruzko adierazpen instituzionala (Educo).
- Mikel Arregi Aranburu jaunak zinegotzi karguari uko egitearen idatziaren berri hartzea.

Kontrola

- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, zehazki, 662/2020 zenbakidunetik 708/2020 zenbakidunera.
- Zinegotzi-Ahaldunen ebazpenen berri ematea, zehazki, 878/2020 zenbakidunetik 1000/2020 zenbakidunera.

Orden del D6a:

- Lectura y aprobaci6n, si procede, del borrador del acta de la sesi6n celebrada el 25/11/2020.

Parte Dispositiva

- Propuesta de renovaci6n del convenio plurianual con la Asociaci6n Xochilt Acalt.
- Propuesta de adhesi6n a la red vasca municipal de protecci6n de defensores de Derecho Humanos.
- Declaraci6n institucional sobre buen trato a menores (Educo).
- Toma de conocimiento del escrito de renuncia al cargo de concejal de D. Mikel Arregi Aranburu.

Parte de Control

- Dar cuenta de las Resoluciones de Alcaldía comprendidas entre la n^o 662/2020 y la n^o 708/2020.
- Dar cuenta de las Resoluciones de Concejal-Delegado comprendidas entre la n^o 878/2020 y la n^o 1000/2020.



8. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

8.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Arratsalde on guztioi eta mila esker gurekin izateagatik. Gaur, 2020ko abenduaren 17ko udalbatzara honetara etortzeagatik, ikusiko dezutenez, berriro bozeramaileak gaude hemen eta publiko artean beste zinegotzian daude, ez dakit ikusiko den. Baino, denok jakinaren gainean egoteko.

“Muy buenas tardes y bienvenidos al pleno que celebramos hoy día 17 de diciembre de 2020. Comentaba que aquí estamos sentados los y las portavoces y luego, para que se sepa porque no sé si se ve en la imagen, el resto de concejales están sentados en los bancos que hay en el salón de plenos.”

1. 2020/11/25ean egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Zinegotziei bidali zaien 2020/11/25 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Alkateak honen onarpena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, ontzat eman du.

2. Xochilt Acalt elkartearekin urte anitzeko hitzarmena berritzeko proposamena.

Lehenbizi Alkateak hartzen du hitza honakoa esateko: “Kontuan hartuz 2004. urtean lehenengo aldiz Andoingo udalak Mugarik Gaberekin urte anitzeko hitzarmena onartu zuela Larreinaga -Mailpaisillo udalerriko landa giroko gazteen heziketa formala laguntzea, proiektuaren garapenerako Mertxe Brosa andoaindarraren zuzendaritzapean zegoelarik, aipatu egitasmoa.

Ikusirik, aurreko hitzarmena bukatu baino lehen, bai lankide boluntarioen aldetik, bai udalaren aldetik, harreman egonkorragoa kanpoko erakundeen artean bitartekotzari gabe proposatu zen Xochilt Acalt erakundearen eta udalaren artean, urte anitzeko hitzarmena sinatzea lau urteetarako.

“En el año 2004 por primera vez el ayuntamiento de Andoain formalizó un convenio plurianual con Mugarik Gabe para el desarrollo del proyecto Apoyo a la educación formal de jóvenes rurales del municipio de Larreinaga-Malpaisillo en cuya dirección se encontraba la andoaindarra Mertxe Brosa.

“Visto que justo antes de finalizar el convenio anterior desde el ayuntamiento se vió la necesidad de un marco relacional más estable en el que no mediara una ONG, se propuso un modelo de convenio plurianual entre la organización Xochilt Acalt y el ayuntamiento por un periodo de cuatro años.”

“Hain zuzen ere, gaur hona ekartzen duguna. Gure nahia izango litzateke Xochilt Alcat elkartearekin urte anitzeko hitzarmena berritzea, Larreinaga-Malpaisillo udalerriko landagiroko gazteen heziketa formala eta ekintzailea bultzatzea, proiektua burutzeko hurrengo lau urteetarako, hau da, 2020tik 2023ra. “

“Decía que nuestra intención es aprobar nuevamente la renovación el convenio plurianual con la asociación Xochilt Acalt para llevar a cabo el proyecto de apoyo a la educación formal y el emprendimiento de jóvenes rurales del municipio de Larreinaga-Malpaisillo por un periodo de 4 años, es decir, del año 2020 al 2023.”

“Akats bat detektatu dugu dokumentazioan, ez dakit konturatu zareten, baina, lau urtez izango lirarteke, 26.930 euro, batzordean komentatu zen bezala.”

“Decía que el importe sería 26.930 euros por cada uno de los cuatro años, ya que hemos detectado que en el primer año hay una errata y pone otro importe, pero, tal como se dijo y así se acordó en la comisión, sería la misma cantidad de 26.930 euros por los cuatro años. Hori izango litzateke



bozkatzera jarriko genuena.”

Kontuan hartuz 2004. urtean lehenengo aldiz Andoingo Udalak Mugarik Gabe-rekin urteanitzeko Hitzarmena onartu zuela “Larreynaga-Malpaisillo udalerriko landagioko gazteen heziketa formala laguntzea” proiektuaren garapenerako, Mertxe Brosa andoaindarraren zuzendaritzapean zegoelarik aipatu egitasmoa.

Ikusirik, aurreko hitzarmena bukatu baino lehen, bai lankide boluntarioaren aldetik bai Udalaren aldetik harreman egonkorragoa ezartzeko beharra ikusi zenez, Gobernuz Kanpoko Erakunderen baten bitartekotzarik gabe, proposatu zen Xochilt Acalt erakundearen eta Udalaren artean urte anitzeko Hitzarmena sinatzea 4 urterako.

Kontuan izanik aipatutako urte anitzeko hitzarmenak bere indarraldia 2019eko abenduaren 31artekoa zuela, bertan lankidetzaz-espazioa mantentzeko borondatea jasotzen zen arren, eta esperientzia ebaluatu ondoren Hitzarmena berritzeko bideragarritasuna aztertzea.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2020ko abenduaren 1eko bileran emandako aldeko irizpena.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Xochilt Acalt elkartearekin urte anitzeko hitzarmena berritzea, “Larreynaga-Malpaisillo udalerriko landagioko gazteen heziketa formala eta ekintzailea bultzatzea” proiektua burutzeko, 4 urtetarako, hau da, 2020tik 2023ra, urtero emango zaien dirukopurua honakoa izango delarik:

<i>2020</i>	<i>2021</i>	<i>2022</i>	<i>2023</i>
<i>26.930</i>	<i>26.930</i>	<i>26.930</i>	<i>26.930</i>

2. Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzako udal lansailari.
3. Hartutako erabakia Xochilt Acalt elkarteari jakinaraztea.

3. Giza eskubideen defendatzaileak babesteko udal euskal sareari atxikitzeko proposamena.

Alkateak honakoa esaten du: “Kasu hau, baita ere, Gizarte Zerbitzuetako batzordean ikusi zen, babes sarearen eskaera egin ziguten giza eskubideen defendatzaileak babesteko eusko udal sarean Andoingo udala bertako kide izan dadin. Kontuan hartu behar da sare horrek, ahaleginak batu nahi dituela lokalaren esparruan herritarren jarduera eremua berreskuratzeko, bai eta udalak defendatzaileak babesteko egiten duen ekintzari balioa eman nahi diola ere.

“Pairatzen duten ahultasun egoeraren hazkundearen aurrean espazio seguruak, nazioarteko ikusgarritasuna eta herritarrak sentsibilizatzea eskatuz.”

“Decía que este tema también se vió en la Comisión de Servicios Sociales, es una solicitud que nos llega de Babes Sarea, que es la red vasca municipal de protección de defensores y defensoras de derechos humanos y la intención es que el ayuntamiento de Andoain forme parte de esta red. Teniendo en cuenta que, dicha red lo que busca es aunar esfuerzos en la esfera de lo local para recuperar el espacio de actuación de la ciudadanía, así como poner en valor la acción del ayuntamiento en la protección de las defensoras y defensores ante el incremento de la situación de vulnerabilidad que sufren, demandando espacios seguros, visibilización internacional y sensibilización a la población.”

“Orduan gaur bozkatzera ekartzen duguna, hain zuzen, izango da, ba, giza eskubideen defendatzaileen babesari buruzko adierazpen instituzionalari atxikitzea, Babes Sarea baitakar horrek, ez da dakar inongo kosturik hori egitea eta gero, ba, haiekin eta haiek antolatzen dituzten ekintzetan parte hartuko genuke.”



“Decíamos que lo que hoy vamos a someter a votación es la adhesión a la declaración institucional sobre la protección a defensores y defensoras de derechos humanos, porque ello supone nuestra incorporación a Babes Sarea que no tiene ningún coste el hecho de estar adheridos y luego eso sí, participaríamos activamente en la organización y realización de acciones conjuntas con dicha red.”

Babes sarearen eskaera ikusita, giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal udal-sarea, Andoingo Udala bertako kide izan dadin.

Kontuan hartu behar da sare horrek ahaleginak batu nahi dituela lokalaren esparruan, herritarren jarduera-eremua berreskuratzeko, bai eta Udalak defendatzaileak babesteko egiten duen ekintzari balioa eman nahi diola ere, pairatzen duten ahultasun-egoeraren hazkundearen aurrean, espazio segurua, nazioarteko ikusgarritasuna eta herritarrak sentsibilizatzea eskatuz.

Nazioarteko lankidetzaz garatzeko beste urrats bat dela uste duen udal-teknikariaren oniritzia egiaztatuz.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2020ko abenduaren 1eko bileran emandako aldeko irizpena.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Giza eskubideen defendatzaileak babesteari buruzko Adierazpen Instituzionalari atxikitzea, Babes sarean sartzea baitakar horrek.
2. Sarearekin batera ekintzak antolatzen eta egiten aktiboki parte hartzea.
3. Akordio honen berri ematea Babes sareari.

4. Adingabeei tratua emateari buruzko adierazpen instituzionala (Educo).

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Hau irakurriko dugu. Haurtzaroarekiko tratua onak bermatzeko konpromisoaren udal adierazpena. Declaración municipal de compromiso hacia el buen trato en la infancia.”

“Haurren kolektiboa, berez, talde zaugarria da, horregatik, Haur eta Nerabeen Eskubideen Adierazpenak Haurtzaroari buruzko eskubide batzuk, jasotzen ditu, beteak beste bizitza, osasuna, hezkuntza, aisia, familia-bizitza, indarkeriaren aurrean babestuta egotea, ez diskriminatuak izatea eta haien iritziak entzutea. Indarrean dugun eta bideratzen gaituen lege-esparruak kontuan hartzen ditu eskubide horiek, baina horietako batzuk maiztasun eta larritasun batekin urratzen dira. Horrek gure erantzunkizuna eskatzen du, eta mobilizatu egiten gaitu.

“El ayuntamiento de Andoain quiere presentar públicamente su compromiso unánime con todos los niños, niñas y adolescentes de este municipio, para que puedan crecer y educarse en entornos seguros y donde el buen trato sea una característica de toda nuestra comunidad.

“Gure asmoa borondateak eta jarduerak batzea da, Haurtzaroa eta Nerabeen inguruko mehatxuen aurrean, gure udalerrira babesteko benetako espazioa bihurtzea.

“Andoain quiere convertirse así en un municipio comprometido con el buen trato a la infancia. Desde una apuesta institucional contando con diferentes agentes sociales y con la comunidad en general iniciamos un camino que queremos quede plasmado en un Plan Local de Actuación.

“Hezi Zerbitzuen eta Educo Fundazioaren laguntza onartzen dugu. Prozesu horren lehen mugaria 6 hilabete barru izango da. Haur eta Nerabeei Tratua emateko tokiko plan bat, 2021. urtean sozializatuko dena.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu egin du.

5. Mikel Arregi Aranburu jaunak zinegotzi karguari uko egitearen idatziaren berri hartzea.



Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Mikel Arregi Aranburu jaunak, EAJ/PNVko zinegotziak, 2020ko abenduaren 10ean aurkezturiko idatzia eta kontuan izanda baita ere, Udal Gobernu Batzordeko kidea, horren bidez, udaletxe honetako zinegotzi izateari uko egiten diolarik.

Visto el escrito presentado con fecha del 10 de diciembre por el concejal del grupo municipal EAJ/PNV y miembro del equipo de gobierno D. Mikel Arregi Aranburu por el que renuncia a su condición de concejal del ayuntamiento.

Halaber ikusita hauteskunde zerrendako jarraian zerrendatzen diren hautagai jauna eta andreak uko egiteko aurkeztutako idatzia.

Teniendo en cuenta también el escrito de renuncia presentado por los/as siguientes candidatos de dicha lista electoral D. Gorka Artola Beobide, D. José Luis Huici Leiza, Dña. Agurtzane Irigoras Urretabizkaia, D. Aritz Amondarain Iburguren, Dña. Ainhoa Elola Aranburu, D. Andoni Elozegi Ezkurdi, Dña. María Aranzazu Alonso Irigoras y Dña. Soledad Irigoras Balda.

“Horrenbestez, hartuko genuke errenuntzia hori eta, baita ere, orain erabaki hau jakinarazi behar zaio Hauteskunde Batzorde Zentralari, aipatu hautagai zerrendan 14. postuan doan Huitzi Alfonso Alexander jauna zinegotzia izango dela.

“Y como consecuencia de esta renuncia daríamos traslado del presente acuerdo a la Junta Electoral Central a los efectos de que sea nombrado concejal por la referida candidatura el número 14 en la lista, D. Alexander Huitzi Alfonso.

“Batetik, gure aldetik aipatzea, Mikel Arregi Aranburu jaunak gaur agur esaten digula, batez ere, politika mundura, egia esanda 1991tik 2007ra, etengabe, aritu zen EAJko zinegotzi gisa, denok dakigun bezala, 1999 eta 2003an EAJ/PNVk Alkate gai gisa aurkeztu zuen eta 2019ko ekainetik gaur arte gobernu taldeko kidea izan da, 3. Alkateordea eta udaleko Euskara saileko lehendakaria, hori guztiagatik, gure aldetik, gure esker ona, beroena, egin duen lan guztiagatik eta batez ere, orain desiratzen diogu momentuaz gozatzea eta alde horretatik oparoa izatea.

“Decía que D. Mikel Arregi dice adiós hoy a su carrera política, desde 1991 hasta el 2007 ha ejercido su actividad como concejal de EAJ/PNV, de forma ininterrumpida. En 1999 y 2003 se presentó como candidato a la alcaldía siendo en los comicios del 2003 su candidatura la más votada y, bueno, recuperó la participación en el ayuntamiento de forma muy activa desde junio de 2019, hasta hoy, siendo parte del equipo de gobierno, Tercer Teniente de Alcalde y Presidente del área de Euskara del ayuntamiento y, bueno, por todas estas cuestiones, agradecer en nombre del ayuntamiento de Andoain a Mikel todo el trabajo realizado durante todos estos años y desearle que disfrute mucho de esta nueva etapa y que le vaya fantásticamente bien.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nik, nola ez, guztien aurrean eskerrak eman. Mila mila esker Mikel, egindako lanagatik, egindako esfortzuagatik, erakutsitako guztiagatik, hor egoteagatik, bertan eta, bueno, zure ibilbide politikoa hemen amaitzen da gaur, baino, ondoan izango zaitudala pentsatzen dut eta bestela ni izango nauzu ate joka berriro. Denen aurrean, eskertu benetan, bihotz bihotzez egindako lana eta egindako esfortzua.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Mikel Arregi Aranburu jaunak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotzi jaunak aurkezturiko uko egitearen jakinaren ganean geratzea, eta ondorengo jaun-andreek aurkeztutako idatziak: Gorka Artola Beobide, José Luis Huici Leiza, Agurtzane Irigoras Urretabizkaia, Aritz Amondarain Aizpurua, Ainhoa Elola Aranburu, Andoni Elozegi Ezkurdi, María Aranzazu Alonso Irigoras eta María Soledad Irigoras Balda.

2.- Erabaki hori jakinaraztea Hauteskunde Batzorde Zentralari, aipatu hautagai zerrendan 14 postuan doan Alexander Huitzi Alfonso jauna zinegotzia izendatua izan dadin.

3.- Mikel Arregi Aranburu zinegotzi jaunari eskerrak ematea Udalbatzaren kide gisa gaur arte egin



duen lanarengatik.

4.- Erabaki hau Hauteskunde Batzorde Zentralari eta interesatuei jakinaraztea.

6. Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, zehazki, 662/2020 zenbakidunetik 708/2020 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatetzaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 662/2020 zenbakidunetik 708/2020 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

7. Zinegotzi-Ahaldunen ebazpenen berri ematea, zehazki, 878/2020 zenbakidunetik 1000/2020 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Zinegotzi-Ahaldunen ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, han zuzen ere, 878/2020 zenbakidunetik 1000/2020 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

8. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkate andreak, galderak, eskaerak eta proposamenak txandari irekiera eman dio eta lehenbizi, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi. Aurreko udalbatzan galdetu genuen edo eskatu genuen 2020ko APParen eskaera guztien zerrenda eta erantzunak nahi genituela, behar ziren, beharreko babes neurriak betez. Jendeak kexatzen delako, egiaztatu nahi genuelako, hilabete pasa da eta ez dugu erantzunik jaso eta orduan, berriro eskatzen dugu, gure ustez oposizio bezala eskubidea dugulako informazio hori edukitzeko.”

Izagirre andreak, EAJ/PNVko eledunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Bale. Entzun genuen, esan genuen bidaliko zitzaizuela, agindua emango dugu bidaltzeko, zerrenda osoa.”

Jarraian, Arregi jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on eta uste dut nahiko laburra izango naizela baina, hitz hauek esan gabe ez nuen amaitu nahi nire ibilbidea.

“Nire azken parte-hartzea da zinegotzi bezala eta, aprobetxatu nahi dut agur hitza batzuek esateko. Idatzian jartzen nuen bezala, nire adina eta bizi dugun osasun egoera izan dira arrazoi nagusia hartu dudana erabakia hartzeko. Nire lagun batek dioten bezala, zaharrak trastoak dira, gu berriz helduak gara. Heldutasun honetara iritsi naizen honetan esperientzian irabazi dut eta memoria baten jabe naiz. Heldutasun hori, ona da zinegotzi lana aurrera eramateko baina, hori oso baliagarria izan arren ez da ezertarako indarririk eta kemenik ez badago eta horixe da, hain zuzen ere, falta zaidana. Zinegotzi lanetan aurrera jarraitzeko indarra eta kemenak, Hona arrazoi nagusia nire erabakia hartzeko.

“Bukatu da, Oso nekatua bukatu dut bai fisikoki eta psikologikoki ere. Hala eta guztiz ere, benetan sinesten dut udalgintza, herrigintza egiteko modu egokia dela deritzot eta honetan jarraitzea animatzen zaituztet. Andoingo herriak eskertuko dizue. Andoainek merezi du bere alde lan egiteak, bai, Andoainek merezi du eta, hori dela eta, nire anaia Rikardoren hitz batzuk ekarri nahi ditut gogora.

“Andoain herri umila, izen haundirik gabekoa da, horregatik maite dut gehiago, horregatik nago harro nire jaioterriaz. Ezagutzen baitut bertan lanean ari diren euskaltzale militante zahar eta gazteak eta horregatik gordetzen dut Euskal Herriarengan esperantza. Eguneroko borroka isila, izen handirik gabea, hori da Euskal Herriaren euskarria. Gizon eta gazte horien izenak ez dira geldituko seguraski



Euskal Herriaren historiaren orrietan, baino, horiek egingo dute posible inork baino gehiago Euskal Herriak historia izaten segitzea.

“Hitz hauek, orain dela 51 urte eta erdi idatziak izan ziren, bera hil baino 11 egun lehenago publikatuak Zeruko Argian. 1969ko ekainaren 29an, San Pedro egunean. Hitz hauek ez dute batere gaurkotasunik galdu eta niri dagokidanez oso harro nago andoaindarra izateaz. Andoingo herriari zerbitzatu izanaz, orain zinegotzi moduan, lehenago herrigintzan, ikastolan, kultur arloan, politikan eta, pentsatzen dut zuek ere, ni bezala, hori egiten ari zaretela, egiten jarraituko duzuela eta ondorioz gure emana ere, Andoingo eta Euskal Herriko historian idazten ariko garela. Eutsi horri gogotsu.

“Bukatzeko, eskez hitz batzuk esan nahi ditut. Batzuk entzun dituzte gaur baino, bueno. Eskerrak Euskara Saileko langile guztiei, beraiei esker bete ahal izan baitut nire egitekoa ENBAko zinegotzi arduradun bezala. Benetan eta bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet eta eman beharrean nago.

“Era berean, eskerrak ENBAkide izan zareten guztioi, zuek posible egin baituzue gure bilerak gora behera handirik gabe egitea eta genituen betebeharrak betetzea. Luzatu nahi ditut ere eskerrak udaletxeko hainbat eta hainbat langileei, beraiekin gutxi edo gehiago izan ditudan harremani esker nire lanak betetzen lagundu didatelako eta, azkenik, zuei, zinegotziei, nirekin batera bidelagun izan zaituzte dalako udalgintza lan honetan.

“Eta, nola ez, barkamena ere eskatu beharrean naiz, egin dudan edo esan dudan edozergatik inor gaizki edo minduta sentitu bada. Barkatu bihotzez.

“Eta benetan bukatzeko, orain dela 13 urte eta erdi, hamasei urteko udal ibilbidearen ondoren nire agurrean esan nituen azken hitzekin agurtu nahi zaituztet.

“Andoain bizitzeko leku egokia egin dezazuela, merezi du eta, Andoainen bizitzea. Maite ezazue Andoain eta andoaindarrak maiteko zaituztete. Zuetako bakoitzari, bihotz bihotzez eta, nahi duzuen arte, beti izango nauzue alboan. Eutsi goiari. Animo eta bizi euskaraz. Eskerrik asko.”

Jarraian, Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Cuando yo empecé en el ayuntamiento, por otros motivos, tuve la suerte de conocerle y por otros temas también fuimos teniendo que conversar y hablar de muchísimas cosas y en ese sentido, para mí personalmente, siempre ha sido una persona referente de este municipio y agradecerle toda la dedicación y todo el trabajo que ha desarrollado para el ayuntamiento y para fuera del ayuntamiento que, también entendemos, se han hecho muchas cosas.

“Consideramos que, bueno, fruto de todo ese trabajo, requiere muchas horas, esfuerzos y también muchas veces conlleva tener pequeñas alegrías y en ese sentido agradecerle toda su labor y sobre todo, ahora ya, que disfrute todavía si cabe un poco más de la familia y de esta nueva etapa. Mila esker eta eutsi goiari baita.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bilduko eledunak hartu du hitza honakoa esateko:

“Goizean agurtu gara, baino, orain taldearen izenean hitz batzuk esan nahi dizkizugu. Azken urte eta erdian, hainbatetan partekatu izan dugu bai udaleko batzordeen eta udalaren beraren funtzionamenduari buruzko kezka eta alde horretatik, bai nire izenean eta taldearen izenean, eskerrak eman nahi dizkizugu zuk zuzendu duzun ENBA batzordean eroso sentitu garelako eta eztabaidak-eztabaida eta iritziak-iritzi oposizioko gure jarduna behar den bezala burutzeko aukera izan dugulako eta guzti horregatik, eskerrak.

“Bestetik, agur hau kezka bizi dugu gaur egun gure taldeak Eusko Alderdi Jeltzaleak udal taldearekin duen zubi bakarra badoalako eta horrek kezka bizi dugu. Hau esanda, sorterik onena opa dizugu bizimodu berrian, gozatu familiaz, gozatu lagunetaz, biloba txikiak eta zaindu.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Yo también me he despedido a la mañana, pero, lo que le he dicho, nosotros, aparte de las desavenencias que hemos tenido creo que el trabajo conjunto ha sido bueno, pienso que sí que es verdad, que es un referente en Andoain, por el trabajo que ha hecho durante todos estos años y que lo cortés no quita lo valiente y luego, pues, la verdad, creo que sí que es verdad que se va a notar su



falta. Lo siento por el chico que viene, porque el listón que deja es muy alto y bueno, desearle que disfrute muchísimo de la vida que es lo que nos queda y que sea muy feliz, nos vamos a seguir viendo.”

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Plenoa amaitu aurretik esan nahi dut, aipatu nahi dut, guztiok dakigun bezala, gabonak, familiakoekin eta lagunekin elkartzeko direla, normalki musu, besarkada, hitz politak eta bizi oneko guneak direla baino, aurten gabonak, desberdinak izango dira. Gogorra izango da, senide eta lagun horiek ikusi, musukatu eta besarkatu ezin izatea baino oraindik ere data gogorragoak eta zailagoak izango dira, azken hilabete honetan maite dugun pertsona bat galdu duten familientzat, orduan, alde horretatik bai, familia guzti horiei bidaltzen dizuegu musurik handiena eta gure indar eta amore guztia.

“Covid-19ak guztia aldatu du eta benetan garrantzizkoa zer den konturatu arazteko balio izan digu. Inoiz baino gehiago agerian geratu da gizarte bat garela eta egiten duguna edo ez duguna egiten, diogunak eragina duela beste pertsonengan, horrexegatik eskatzen dizuegu behin baino gehiagotan, gabonetan batez ere, inoiz baino gehiago, zuhurtziaz eta erantzunkizunez jokatzeko eta batez ere arauak errespetatuz. Gure eskubidea da baina, baita, gure betebeharra ere, ezin baitugu hirugarren olaturik onartu. Jai zoriontsuak opa dizkizuegu eta goza dezagun denok arduraz eguberriaz.

“Decía que la Navidad, sin duda, son momentos de encuentro con familiares y amigos y son momentos de besos, abrazos, palabras bonitas y buenos deseos y este año va a ser una Navidad diferente. Va a ser duro no poder vernos, besarnos, abrazar a esos familiares y amigos pero, todavía son una fechas más duras y complicadas para aquellas familias que a lo largo de estos meses han perdido a un familiar y por todo ello, en nombre de todos trasladarles nuestro mayor beso y todas nuestra fuerza y ánimo, Tenemos claro que la Covid-19 lo está cambiando todo, nos ha hecho darnos cuenta y valorar lo que realmente nos importa y más que nunca se ha puesto de manifiesto que lo que somos es una sociedad y que lo que hacemos o aquello que dejamos de hacer a nivel individual repercute en las otras personas, así que, os pedimos que esta Navidad actuemos de una manera responsable, más que nunca, con prudencia y sobre todo respetando las normas, es nuestro derecho pero también es nuestra obligación porque si algo está claro y algo estamos aprendiendo es que no nos podemos permitir que haya una tercera ola. Así que deseamos unas muy felices fiestas a todos, pero sobre todo que disfrutemos responsablemente de la Navidad. Mila esker.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia, 19:30 minutu zirenean. Behin-behineko idazkariak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Behin-behineko idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Behin-behineko idazkaria

Eginbidea: Nik, idazkari naizen honek egiten dudana, aditzera emateko bat etorritz azaroaren 28-ko 2568/86. Erret Dekretuak onarturiko Tokiko Korporazioen Antolakuntza, Jardunbide eta Eraentza Juridikoko Erregelamenduko 199.1.3 artikulua xedatzen duenarekin, honako akta hau jasota gelditu dela 1562039 zenbakiduneko orritik 1562042 zenbakidun orrira. FEDE EMATEN DUT.

Andoainen, sinadura datan.

Behin-behineko idazkaria

